


KORONABIRUSAREN AURREAN UDALETIK HARTU DIREN NEURRIAK



Osasun krisia iritsi aurretik, pertsona guztien ongizatea gure erabakien erdigunean egon bada ere, are eta gehiago indartzea eskatzen digu gaurko eta etorkizuneko agertokiak. Hauek dira martxoaren 14tik Udaletik hartu diren neurri eta erabakiak:

GIZARTE ZERBITZUAK

1 ELIKAGAI
BANKUA

Koronabirus egoera honetan, elikagai bankutik hilean behin ematen digutenaren zati bat eman ahal izan digute eta udalak osatu du lehenagoko, zein eskaera berria egin duten herritarren beharra asetzeko kantitatea.



2 FAMILIEI
LAGUNTZA

Ekimen honen helburua derrigorrezko hezkuntza barruan dauden ikasleen familiei oinarrizko beharrak asetzeko laguntza ematea da. Izan ere, ikastetxeen itxierak, egoera zaurgarrienean dauden familiengan zailtasunak sortu ditu.



3 70 URTETIK
GORAKOEN
JARRAIPENA

Konfinamenduan hasi ginenetik telefono deiak egiten ari gara 70 urtez gorako herritar guztiei. Jarraipen honen helburuak, gertutasuna adieraztea, euren egoera eta beharren berri izatea, eta eskura ditzaketan laguntza ezberdinen berri ematea dira.



4 MENDEKOTASU
NA DUTENEN
JARRAIPENA

Alarma ezarri zenetik telefono deiak egin ditugu egoera berri honen eragina ezagutu eta laguntza aukerak bideratu ahal izateko.




5 GIZARTE ARLOKO
ZAILTASUN
EGOERAK

Telefonoz artatu ditugu herritarrek aurkeztutako zailtasun egoera berriak. Aukeren arabera egoerak aztertu ditugu eta baliabideak zehaztu.



6 LAGUNTZA
PSIKOLOGIKOA

Bizitzen ari garen egoeran, familiako kideren bat hil zaien herritarrei, prozesu horretan laguntzeko psikologian aditu diren laguntza jasotzeko aukera eskaini die Udalak.



7 OSASUN
ZENTROAREKIN
KOORDINAZIOA

Prebentzio, garbiketa edo babes neurriak hartzean, herriko osasun zentrotik jasotako kutsadura hedapenaren informazioan baliatuz egin/go dugu. Beti ere, konfidentzialtasuna erabat errespetatuz.



INDARKERIA SEXISTA JASATEN ARI BAZARA, DEITU:

24 ORDUKO ZERBITZUA: 900.84.01.11

LARRIALDI EGOERA: 943.22.44.11



ZERGA BILKETA

8

ZABORRAK

1. hiruhilekoa maiatzaren 2tik ekainaren 10 arte
2. hiruhilekoa uztailaren 1etik irailaren 25 arte
3. hiruhilekoa urriaren 1etik abenduaren 22 arte

9

IBILGAILUEN
GAINEKO
ZERGA

Maiatzaren 2tik uztailaren 20 arte.

10

ONDASUN
HIGIEZINEN
GAINEKO ZERGA

Abuztuaren 1etik irailaren 15era.

11

ENPRESAK

Alarma egoera indarrean dagoen epe barruan, herriko enpresei ez zaie zaborren gaineko kuotarik kobratuko.



PREBENTZIO ETA BABES NEURRIAK

12

EROSKETA
ZERBITZUA

40 boluntarioekin osatutako sareari esker, adineko edo gaixotasun kronikoak dituzten pertsonai elikagaiak eta sendagaiak eskuratzeko laguntza eman zaie.



13

MASKARILEN
BANAKETA

Boluntario sarearekin batera, ethez etxe telazko maskarilak banatu ditugu. Maskarilekin batera, hainbat ohar jasotzen dituen orria eman zaie familiei.



14

KALE ETA
ERAIKIN
GARBIKETA

Martxoak 14tik hona, herriko garbiketa lanak indartu ditugu. Konfinamendu osoan geundenean, saltoki eta osasun zentroan ipini genuen arreta berezia. Konfinamendua arintzen doan bezala, kalera gero eta jende gehiago aterako denez, garbiketa zabalagoa egingo dugu.



MERKATARITZA ETA OSTALARITZA

15

UDAL DIRU
LAGUNTZAK

Alarma egoeraren ondorioz, norberaren konturako langile askok eten behar izan dute beren jarduera, horien artean herriko merkataritzak. Martxan ipini diren laguntza ekonomikoak jardueraren gastuak finantzatzera eta, ahal den neurrian, diru-sarreraren galera arintzera bideratuta daude.



GAZTERIA ZERBITZUA

16

LUDETEKA ETA
GAZTELEKUA

Covid-19 birusaren ondorioz, aurrez aurreko zerbitzu guztiak bertan behera geratu dira, baina egoera honetan bereziki beharrezkoa ikusten dugunez haur eta nerabeekin kontaktuan egotea, ludoteka eta gazteleku zerbitzuetatik sustapen birtuala egiten ari gara.



ZURE ESKURA GAUDE



INFORMAZIO GEHIAGO

www.irura.eus

943 69 13 33 (09:00-14:00)

